

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 82/2023 otsailaren 16koa. Prestakuntza ekipamenduetan inbertitzeko laguntzetarako 2023 deialdia onestea

Une honetako agertoki sozio-ekonomikoan, langileen prestakuntza ezinbestekoa da profesional kualifikatuak eta aurrerapen teknologikoetara egokitzea eta espezializazio maila gero eta altuagoa eskatzen duen lan merkatura sartzeko gaitasuna izango duten profesionalak izaterako orduan.

Prestakuntza helburu horrekin bat datorrela bermatzeko, beharrezkoa da etengabeko prestakuntzan lan egiten duten entitateek eguneratutako eta irakaskuntza eredu berrietara egokitutako prestakuntza ekipamenduak izatea, baita ezagutza eta teknologiaren etengabeko aurrerapenera moldatutako ekipamenduak izatea ere.

Arabako lanbide heziketako zentroek funtsezko erreferentea osatzen dute gure ekonomia eta gure enpresak garatzeko eta enplegua eta, azken finean, gure gizartearen ongizatea hobetzeko. Zentro horiek esperientzia luzea daukate sortzen diren aldaketei aurre egiten eta eskaintzen duten lan arloko prestakuntza enpresen zein pertsonen beharrietara egokitzen.

Horiek horrela, aipatutako helburuak lortze aldera, prestakuntza ekipamenduetan inbertitzeko 2023ko laguntza programarako deia egiten da. Deialdi hori Arabako lanbide heziketako ikaste-txeentzat eta Arabako prestakuntza erakundeentzat da, Foru Aldundi honek diruz lagundutako beste prestakuntza ekintza batzuk gauzatu badituzte.

Arabako Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, onespena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneko eremuan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrei.

Oinarri horien onarpenaren ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, 2019ko ekitaldian ekipamenduetan inbertitzeko laguntzen deialdia ezarri behar da.

Horregatik guztiagatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

1. Onestea prestakuntza ekipamenduan inbertitzeko laguntzen 2023ko deialdi publikoa, erabilgarri dagoen aurrekontu esparrura mugatuta. Laguntzetarako ezartzen den gehieneko zuzkidura 125.010,00 euro da. Deialdia foru agindu honi erantsi zaio.

2. Deialdia arautzen dute Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileetan (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta foru agindu honen eranskinean xedatzen denak.

3. Foru agindu honen bidez arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2023rako aurrekontuko 30502G/241300/78100302 partidaren kontura ordainduko dira, eta horretarako, 125.010,00 euroko zuzkidura dago.

4. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorriz, administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko ebazpena eman duen erakundeari berari, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, egintza argitaratu ondorengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

5. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 16a

Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

ERANSKINA

PRESTAKUNTZA EKIPAMENDUETAN INBERTITZEKO LAGUNTZAK 2023ko deialdia

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Deialdi honen xedea da Arabako lanbide heziketako ikastetxeen eta arautu gabeko prestakuntza ikastaroak eskaintzen dituzten irabazteko xederik gabeko erakundeen ekipamenduaren, zentroen edo ikasgelen gaurkotzea ahalbidetzea.

Deialdi honen bidez diruz lagundu daitezkeen ekipamenduak Arabako lurralde historikoko zentro eta ikasgeletan erabiliko dira.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

2.1. Deialdi honetan, onuradunatzat joko dira ondoren azaltzen diren erakunde motak, baldin eta sozietatearen egoitza Araban alta emanda badute edo gutxienez ere egoitzaren bat edo zerbitzu zentroren bat lurralde horretan badute:

a) Lanbide heziketako zentroak

b) Irabazteko xederik gabeko elkarteak, fundazioak edo beste erakunde batzuk, prestakuntzako entitate gisa egiaztatuta eta/edo inskribatuta daudenak Lanbideren erregistroan edo, hala balegokio, prestakuntza entitateen estatuko erregistroan.

Dena den, onuradun izateko, ezinbestekoa izango da Arabako Foru Aldundiak sustatutako prestakuntza laguntzen programen barruan diruz lagundutako arautu gabeko prestakuntza ikastaroak eman izana gauzatu diren azken lau deialdietan.

Irabazteko xederik gabeko enpresa edo erakundeek ezingo dituzte jaso laguntza hauek.

2.2. Bi erakunde onuradun mota batengatik baino ezin izango du eskatu laguntza erakunde bakoitzak.

3. artikulua. Entitate eskatzaileen eskakizunak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

3.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan dagoen erregistro elektronikokoan, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

3.2. Entitate eskatzaileek Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean izan beharko dituzte, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean daudela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin diezaioke aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kontura.

Beste foru aldundi edo Arabako Lurralde Historikoaz bestelako lurralde erkide bateko ogasunaren aurrean zerga betebeharrak bete behar baditu pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak edo onuradunak, zerga betebeharren eskakizunak zergak ordaintzeko betebeharra duen zerga administrazio bakoitzari egiten dio erreferentzia. Eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

Titularitate publikoko zentroek ez dute justifikatu behar Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana.

3.3. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten entitateak ezingo dira izan dirulaguntza hauen onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 24.2 artikulua (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea).

Halaber, ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoen, harik eta zehapenean ezarritako epea amaitu arte, eta ezta ere Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaienek, hala xedatzen baita 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.5 artikuluan (azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak emandako idazketaren arabera (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa).

3.4. Dirulaguntza eskatzen duten erakunde guztiek, lanbide heziketako zentroek izan ezik, egiaztatu beharko dute, eskabidea aurkezteko unean, Arabako Lurralde Historikoan gutxienez egoitza bat edo zerbitzu zentro bat dutela, jabetzan edo alokairuan.

3.5. Laguntza hauen onuradun diren irabazteko xederik gabeko erakundeek (fundazioak, elkarteak, etab.) legez eratuta egon beharko dute, eta, gainera, diruz lagunduko den prestakuntza ekipamenduak zuzeneko lotura izan beharko du haien xede edo helburu sozialaren arabera gauzatzen duten prestakuntza jarduerarekin.

Irabazteko xederik gabeko erakundeek agiri bidez egiaztatu beharko dute irabazteko xederik gabeko erakundeak direla. Horretarako, kasuan kasuko administrazio erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dute.

Titularitasuna ehuneko 100 publikoa duten eta irabazteko xederik gabeko erakundetzat hartzen ez diren erakundeek titularitasuna ehuneko 100 publikoa dela egiaztatu beharko dute.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren prestakuntza deialdiaren baitan apartatu honetan jasotako egoera egiaztatu bada aurreko urteetan, ez da berriro egiaztatu beharko, egoera aldatu ezean.

3.6. Dirulaguntza hau eskatzen duten erakunde guztiek, lanbide heziketako ikastegiekin izan ezik, justifikatu beharko dute egiaztatuta edo erregistratuta daudela Lanbideren erregistroan edo, bestela, prestakuntza erakundearen estatuko erregistroan. Egiaztapen edo erregistro horrek dirulaguntzaren eskabidearen aurretikoa izan beharko du eta aurkeztutako frogagiriaren datak uneko urtekoa izan behar du.

4. artikulua. Deialdiaren hornidura

4.1. Deialdiaren hornidura 125.010,00 eurokoa da; horietatik 115.000,00 euro lanbide heziketako zentroek aurkeztutako ekipamenduen eskabideetara bideratuko dira, eta 10.010,00 euro beste prestakuntza entitate batzuek aurkeztutako ekipamenduen eskabideetara bideratuko dira.

4.2. LHko zentroetarako zatia ikastetxe horiek aurkeztutako eskaerekin betetzen ez bada, soberakina erabiliko da gainerako prestakuntza erakundeak aurkeztutako eskabideak diruz laguntzeko.

Era beran, gainerako prestakuntza erakundeentzako zatia ez bada guztiz erabiltzen, LHko ikastetxei aplikatu ahal izango zaie soberakina.

5. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak

5.1. Diruz lagundu ahalko dira aktibo inbentariagarriak erostea (makinak, tresnak, lanabesak eta bestelako prestakuntza gaiak), Araban arautu gabeko prestakuntza ikastaroak emateko eta horrekin prestakuntza horren kalitatea hobetzeko badira, eta Araban dauden zentro eta ikasgeletan irakaskuntzarako baliatzeko ez beste ezertarako badira.

5.2. Aurreko atalean aipatutako aktiboak eskuratzen badira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 29. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Hala, bada, arautu gabeko prestakuntza ikastaroak egiteari atxikita egoteko epea ezingo da izan bost urte baino gutxiago erregistro publiko batean inskribatu ahal diren ondasunen kasuan, eta, gainerako ondasunen kasuan, bi urte baino gutxiago.

5.3. 300 eurotik beherako kopurua daukaten ekipamenduetako inbertsio proposamenak ez dira diruz lagunduko.

6. artikulua. Dirulaguntza jaso ezin duen ekipamendua

Ez dira diruz lagunduko:

- Ikastaroetarako beharrezkoa den material suntsikorra erostea.
- Aplikazio informatikoak edo teknologikoak erabili ahal izateko lizentziak.
- Aldez aurretik diruz lagundutako ekipamenduetan ordezteko, baldin eta oraindik beren iraupen aldiaren barruan badaude.
- Administrazio elementu komunak: fotokopiagailuak, faxak....
- Prestakuntza ikasgelan ez dauden baina prestakuntzan baino erabiltzen ez diren tresna informatikoak, hala nola, ordenagailuak, inprimagailuak....
- Prestakuntza programa jakin baten zati ez diren zernahi erabilera orokor eta partekatutako gailuak.
- Lehenago eskatzailea ez beste jabe batek erabilitakoak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ustez, eskabideen artean jasotako ekipamenduetan edo gastu partidak ez badira nahikoa lagungarriak prestakuntza ekintzak garatzeko, orduan partida horiek baztertu ahalko dira eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko.

7. artikulua. Inbertsioa egiteko aldia

Inbertsioa 2023ko urtarrilaren 1aren ostean egin behar da, gehienez ere 2023ko urriaren 31era arte.

8. artikulua. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua

8.1. Diruz laguntzeko moduko aurrekontua dela joko da eskuratze aurrekontua, baldin eta onartutako ekipamenduetan inbertitzeko proiektuan ageri bada.

8.2. Diruz lagundutako ekipamendua irakaskuntza jardueretarako bakarrik erabil daiteke, zeinak BEZetik salbuetsita baitaude, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergaren foru araua onartzen duenak, 20. Bat.9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez:

– Diruz lagunduko den ekipamendua erostean jasandako BEZa ekipamenduaren aurrekontu diruz lagungarriaren zati izango da.

– BEZaren Foru Arauaren 94. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ekipamendu hori eskuratzean jasandako BEZak ez du kenkaria egiteko eskubiderik emango BEZaren aitortzearen, aitortze hori eginez gero.

8.3. Diruz laguntzeko moduko ekipamenduaren BEZaren zerga oinarria 15.000 euro baino handiagoa bada, eskaintza bana eskatu beharko zaie gutxienez hiru hornitzailei ondasuna entregatu aurretik, salbu eta merkaturatzean ez badago behar adina enpresa hornitzaile.

Eskaintza hirukoitz hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta adierazi beharko da zein hautatu den eta zer irizpide erabili diren hautaketarako.

9. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

9.1. Emango den laguntzaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 80 izango da, honako muga hauekin:

– Ekipamenduaren kostua ken dirulaguntza honetatik kanpo lortutako bestelako diru sarre-rak.

– Hurrengo 2. eta 3. idatz zatietan adierazitako mugak.

9.2. Lanbide Heziketako ikastetxeen kasuan, ikastetxe onuradun bakarrak ekipamendu eskabide bategatik edo gehiagogatik gehienez jaso dezakeen dirulaguntzak ezingo ditu gainditu ondoko modulu hauek, aurreko ikasturtean prestakuntza arautuan izandako ikasleen erabateko kopuruaren arabera:

Ikastetxeko ikasle kopurua	Gehieneko dirulaguntza
— 200 ikasle gehienez	5.000 euro
— 201 eta 500 ikasle artean	10.000 euro
— 501 eta 3.000 ikasle artean	25.000 euro
— 3.000 ikasletik gora	45.000 euro

9.3. Lanbide heziketako zentroak ez beste prestakuntza entitate batzuen kasuan, ekipamendu bat edo batzuegatik eman ahalko den gehienezko dirulaguntzak ezingo du gainditu 2.000 euroko kopurua entitate onuradun bakoitzeko.

10. artikulua. Ekipamendua eskatzea eta eska daitekeen gehieneko ekipamendu kopurua

10.1. Araudi honen ondorioetarako, aurkeztutako hornidura edo ekipamendu mota bakoitza ekipamendu eskabide gisa hartuko dira, hornidura edo ekipamendu horren unitate bat edo gehiago eskatzen diren aintzat hartu gabe.

Eskatzaileak aurreikusi badu muntaketa lanen ondoren instalazio bat osatuko duten zenbait ekipamendu edo hornidura eskuratzea, orduan instalazioa osatuko duten hornidura edo ekipamenduen batura ekipamendu eskabide bakar gisa hartuko da.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak egokitzapen lanak egin ahalko ditu, entitate bakoitzak aurkeztutako ekipamendu eskaerak banatuz edo multzokatuz, horrela aurretik ezarritakora hobeto moldatzen dela ulertuz gero.

10.2. Erakunde onuradun bakoitzak gehienez ere eska dezakeen ekipamendu kopurua hau izango da:

- 3.000 ikasle baino gehiago dituzten Lanbide Heziketako zentroetarako: 8 ekipamendu eskaera.
- 501 eta 3.000 ikasle artean dituzten lanbide heziketako zentroak: 5 ekipamendu eskaera.
- 201 eta 500 ikasle artean dituzten lanbide heziketako zentroak: 3 ekipamendu eskaera.
- 200 ikasle edo gutxiago dituzten lanbide heziketako zentroak: 2 ekipamendu eskaera.
- Bestelako prestakuntza erakundeetarako: 2 ekipamendu eskaera.

Entitate eskatzailearen batek ekipamendu eskaera gehiago aurkeztuz gero, baimendutako gehieneko kopuruaz gaindikoak ofizioz baliogabetuko dira, balioetsi gabe, eskatu diren hurrenkera berean.

Era berean, eskatutako dirulaguntzaren zenbateko teorikoa handiagoa bada entitate eskatzaileari 9. artikularen 2. eta 3. idatz zatietan ezarritakoaren arabera eman beharreko dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa baino, ofizioz baliogabetuko dira, balioetsi gabe, aipatutako dirulaguntzaren gehieneko zenbateko baimenduaz gaindikoak, eskatu diren hurrenkera berean.

11. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak ekipamendu bakoitzerako

Eskaera orokorraz gain, eta eskatutako ekipamendu bakoitzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskatutako inbertsioen beharizanen txostena, baita ekipamendua baliatuko duten ikastaroen espezializazioak edo gaiak ere.
- Eskatutako ekipamenduaren eskaintza edo aurrekontua, balizko hornitzaileak prestatutakoa; BEZa barne hartu duen edo ez argitu beharko da.
- Horri buruzko informazio zehatza eskainiko duen Interneteko lotura edo deskribapen katalogoa.
- Diruz laguntzeko moduko ondasunaren BEZaren zerga oinarria 15.000 euro baino handiagoa bada, eskaintza bana eskatu beharko zaie gutxienez hiru hornitzailei ondasuna entregatu aurretik, salbu eta merkatuan ez badago behar adina enpresa hornitzaile.

12. artikulua. Hautatzeko eta balioesteko irizpideak

Ekipamendu eskabideak irizpide hauen arabera aztertuko dira:

a) Eskatutako ekipamenduaren eta ekipamendua baliatuko duten ikastaroen gaiaren arteko lotura (0 - 40 puntu), honela banakatuta:

- Industria arloarekin (ekoizpena, muntaketa, mantentzea, biltegiatzea eta/edo logistika) eta/edo energia eta ingurumen eraginkortasunaren arloarekin zerikusia duten ikastaroetarako ekipamendua: 0 eta 40 puntu bitartean.
- Ekonomia, finantza, kudeaketa, ostalaritza, merkataritza edota gizarte zerbitzuen arloarekin zerikusia duten ikastaroetarako ekipamendua: 0 eta 30 puntu bitartean.
- Bestelako ikastaroetarako ekipamendua: 0 eta 20 puntu bitartean.

b) Ekipamendua erosteko beharra justifikatzeagatik (0 - 50 puntu).

Atal honetan entitate eskatzaileak aurkeztutako oinarri eta arrazoiak aztertuko dira.

c) Aurkeztutako eskaeraren kalitate orokorra (0 - 10 puntu).

– 11. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia eskabidean aurkezten bada, edo aurkeztu ez den dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin aurretik: 10 puntu.

– 11. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia lehenengo errekerimenduaren ondoren aurkezten bada eta, hala, 2. errekerimendurik egin behar ez bada: 5 puntu.

– Gainerako kasuetan: 0 puntu.

13. artikulua. Prozedura izapidetzeko eskumena duten organoak

13.1. Dirulaguntza emateko prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak izapidetuko du, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren bidez.

13.2. Balorazio batzordea edo oinarri orokorrak arautzen dituen azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 6. artikulua aitpatzen duen kide anitzeko organoa honako hauek osatuko dute:

- Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- Kideak: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

- Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

13.3. Batzorde horrek baloratuko ditu jasotako eskabideak, 12. artikuluan jasotako hautapen eta balorazio irizpideen arabera.

Talde bakoitzaren barruan, lanbide heziketako zentroak eta prestakuntzako bestelako erakunde batzuk, aurkeztutako ekipamenduen lehentasun ordena ezarriko da, lortutako puntuazio altuenetik baxuenera; ordena horretan oinarrituz, eskatutako ekipamendu bakoitzari dagokion dirulaguntzaren esleipena proposatuko da, balorazio altuena lortu dutenekin hasita, erabilgarri dagoen kreditu mugara iritsi arte.

Azken puntuazio tarteari dagozkion esleipenak –tarte horrek amaitzen du aurrekontu baliagarria– gerakin baliagarria hainbanatuz egingo dira, diruz laguntzeko modukoa den jarduera bakoitzaren diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren arabera.

13.4. Balorazio batzordeak ebazpenen proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari, egoki diren ebazpenak eman ditzan.

13.5. Ebazpenak bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko dira, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. artikuluan xedatutakoarekin. Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari berari edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako Vitoria-Gasteizko epaitegietan. Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, lehena aurkezteko hilabete izango da eta bigarrena aurkezteko bi hilabete.

13.6. Oro har, eskaera ezetsi dela ulertuko da, baldin eta berariazko ebazpena eman ez bada administrazio isiltasunari buruzko foru araudia urtarrilaren 3ko 4/1999 Legea egokitzen duen 1/1999 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko 14 apartatuan ebazpena emateko eta jakinarazteko ezarritako gehieneko 6 hileko epea igaro ondoren.

II. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK KUDEATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURAK

14. artikulua– Eskaerak aurkezteko epea eta modua

14.1. Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOean argitaratu ondorengo egunean hasiko da eta 2023ko maiatzaren 12an, 14:00etan, bukatu.

14.2. Eskaerak modu elektronikoan aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoa, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

AFaren egoitza elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektroniko baten edo BAKQ sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoan: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/baimenak>.

Salbuespenez, pertsona juridikoaren ordezkariaren ziurtagiri hori ez zaie eskatuko ikastetxe publikoei, baldin eta zenbait ikastetxek IFK komun bakarra badute. Kasu horretan, legezko ordezkariaren sinadura onartuko da, pertsona fisikoen ziurtagiri elektronikoarekin batera, eta, gainera, hezkuntza administrazio eskudunak ordezkari hori izendatu duela egiaztatzen duen izendapena ere erantsi beharko da.

14.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoan zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta 11. artikuluan zehaztutako agiriak erantsi.

15. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura

15.1. Oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da.

15.2. Erakunde eskatzaile batek prestakuntza ekintzaren batengatik jaso dezakeen dirulaguntzari uko egiten badio dirulaguntzak esleitu aurretik, prestakuntza ekintza hori baztertu egingo da dirulaguntzen esleipena kalkulatzeko.

III. KAPITULUA

DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO PROZEDURAK

16. artikulua. Esleitutako dirulaguntzak ordaintzeko eskaera aurkezteko modua, tokia eta epea

16.1. Prestakuntza ekintzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoan.

Dirulaguntza justifikatzeko bide elektronikoz aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute, fideltasunez, jatorrizko agiriarekin; agiri hori erakunde onuradunak edukiko du eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren eskura jarri beharko du hala eskatzen zaionean. Erakunde onuradunak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta bertan adierazi beharko du aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta elektronikoki aurkeztutako dokumentuak jatorrizkoekin bat datozela.

Bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuraduna da aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa izatearen arduraduna.

Ordainketa egiteko erabili diren fakturen eta frogagirien jatorrizkoak aurkezteko eskatzen bada, edo memorian aurkeztutako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko beste edozein agiri, eta ez badira aurkezten edo behar bezala justifikatzen horretarako ezarri den epean, dirulaguntza baliogabetu edo ordaindu beharreko zenbatekoa murriztu ahal izango da; dirulaguntza jadanik ordainduta badago, oso-osorik edo zati bat itzultzeko eskatu ahal izango da, dagozkion berandutze interesekin batera.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu, eta ikusten bada ez datorrela bat jatorrizkoarekin, dagokion zatia itzultzeko eskatuko da.

16.2. Oro har, frogagiriak prestakuntza ekintza amaitu eta gero aurkeztu ahal izango dira, eta dirulaguntzaren kobrantza eskatu, urtebeteko gehieneko epearen bukaera arte itxaro beharrik gabe. Hori da, hain zuzen ere, dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko modu egokia.

Dokumentazioa aurkezteko eta dirulaguntza ordaintzeko eskaera egiteko epea 2023ko azaroaren 10ean amaituko da, 14:00etan.

16.3. 18. artikuluko 3. apartatuan adierazitako agiriak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 13an bukatuko da (14:00 arte).

Hala ere, justifikatutako arrazoiengatik frogagiriak aipatutako epean aurkeztu ezin badira, epea luzatu ahal izango da falta diren frogagiriak behar bezala aurkeztu ahal diren arte.

16.4. Frogagiriak epez kanpo aurkezten badira, gerta liteke emandako dirulaguntza balio-gabetzea.

17. artikulua. Dirulaguntzen ordainketa

17.1. Behin diruz lagundutako prestakuntza ekintza behar bezala justifikatu eta gero, eta dirulaguntza eman zuen ebazpenean zehaztutako betekizun eta baldintza guztiak beteta, kasuan kasuko dirulaguntzaren likidazioa egingo da.

17.2. Ordaindu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, dirulaguntza emateko ebazpenean onartutakoa izango da, eta aurkeztutako frogagiriei 5., 7., 8. eta 9. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko zaie.

17.3. 18. artikuluko 3. apartatuan adierazitako agirietakoren bat aurkezteke egonez gero, aukera izango da dirulaguntza justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordaintzeko.

18. artikulua. Emandako dirulaguntzak ordaindu daitezela eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak

18.1. Justifikatu beharreko aurrerakin gisa justifikatzen denaren ordainketa egingo da erakunde onuradunak justifikazio kontu erraztua eta 2. apartatuan jasotako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Justifikazio kontu erraztuak honako informazio hau jaso behar du:

a) Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak jasotzen dituena.

b) Jardueraren gastuen eta diru sarreraren sailkapen zerrenda. Honako hauek adierazi behar dira: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehe-tasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

18.2. Justifikazio kontu erraztuarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

– Diruz laguntzeko moduko inbertsioei dagozkien fakturak.

– Erositako ekipamenduaren argazki inprimatuak, jarriko den tokian bertan atereak.

Agiri horiek jaso ondoren ikuskapen bisita egingo da, diruz lagundutako ekipo eta obrak modu egokian ezarri eta egin direla ziurtatzeko.

9 artikuluan ezarritako dirulaguntza mugetako edozein aplikatu bada, onargarria izango da, Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapenaren Zerbitzuak txostena alde aurretik txostena eginik, diruz laguntzeko den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu

gabe, ordea; alabaina, beharrezkoa izango da betetzea dirulaguntzaren xedea, eta errespetatzea diruz lagundutako gastuaren gutxieneko zenbateko justifikatu beharrezkoa, alegia, operazio honen emaitza: esleitutako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa zati aplikatutako dirulaguntza ehunekoa.

Ahal dela, plaka bat edo eranskailu bat jarri beharko da, Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako ekipamendua dela adierazteko.

18.3. Jasotako aurrerakina justifikatzeko, diruz lagun daitezkeen gastuen fakturak ordaindu izanaren justifikazio agiriak aurkeztu beharko dira. Horretarako, faktura horien ordainketa frogagiriak aurkeztu beharko dira.

Ez dira onartuko eskudirutan egindako ordainketak, baldin eta horien zenbatekoa ordainketa egiten den unean indarrean dagoen araudian ezarritako zenbateko bera edo handiagoa bada (edo horren kontrabalioa atzerriko monetan).

18.4. Aurreko ataletan adierazitako edozer betetzen ez bada, ordaindutako dirulaguntza itzultzeko eskaera egingo da.

IV. KAPITULUA

BESTE XEDAPEN BATZUK

19. artikulua. Eskaeran jakinarazitako datuak aldatzea

19.1. Diruz lagundutako ekipamenduak edo obrak ezin izango dira ordeztu onartutakoez bestelakoekin, Enplegu, salbu eta Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak berariazko baimena ematen badu.

19.2. Eskatzaileari onartutako diruz lagun daitezkeen gehieneko aurrekontuaren mugarekin, aldaketak egin ahalko dira diruz lagundutako ekipamendu mota edo modeloetan, betiere eskabideen ordena aldarazten ez badute, diruz lagundutako kontzepturen bat gauzatu ez bada ere. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten direnean, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

19.3. Eskaeran jasotako datuak aldatzera eraman duten arrazoiak jakinarazten ez badira, dirulaguntza galdu edo murriztu ahal izango da, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismoaren Sustapen Zerbitzuaren iritziz aldaketa horrek dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea ekarri badu.

20. artikulua. Arautegi aplikagarria

Deialdi hau oinarri hauek arautzen dute, baita Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileek ere (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua).

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauexek arautuko dute: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araubide Ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarreko aurrekontu antolamenduari buruzko foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, indarrean den araudia aplikatuko da, eta bereziki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren araudi esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarria.

21. artikulua. Interpretazioa eta garapena

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio deialdi honen oinarri espezifikoak interpretatzeko, bai eta oinarriok behar bezala aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ebazpenen bitartez garatzeko ere.

22. artikulua. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, horren berri eman beharko zaio, ahalik eta lasterren eta idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari. Hark eman den dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposa dezake.

Deialdi honetan aurreikusitako diru laguntza bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta xede beragatik emandako beste edozein diru laguntza edo laguntza motarekin.

Deialdi honen bidez lortutako laguntzari besterik gehitzen bazaio, edozein dela ere haren izaera (publikoa edo pribatua) edo hura ematen duen organoa, laguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostua baino handiagoa.

23. artikulua. Espedienteak beste laguntza programa batzuetara aldatzea

Aurkezten den eskaeraren bat ezin bada izan deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren aburuz hobeto egokitzen bazaio berak kudeatzen duen beste deialdi bateko dirulaguntzei eta horrelako baten onuradun izateko aukera badu, deialdi horretarako aldatuko du.

24. artikulua. Azken klausula

Ebazpen honetan ezarritako prozedura Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta dirulaguntzen arloan honako hauek ematen dituzten xedapenen mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra Orokorraren Erregelamendua onesten duen uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko 2023rako aurrekontua gauzatzeari buruzko indarreko Foru Araua, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.